

ERAKUSKETA

Donostia 1813: nola irudikatu sufirimendua?

DONOSTIAKO SUTEAREN bigarren mendeurrenean, erakunde publiko eta elkarteek gertatutakoa oroitzea dute helburu eta hortxe koka dezakegu San Telmo Museoko 1813. *Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea* erakusketa. Hiru multzo eta bederatzi ataletan banaturik dago –bi atal Untzi Museoa daude ikusgai– eta artelan garaikideak, grabatuak, dokumentu historikoak eta beste euskarri askotako objektuak topatuko ditu bisitariak erakusketan barrena.

Donostian 1813an jazotakoaz, orain arte nagusiki kontatu izan digutena da ingelesek su eman eta horren ondoren donostiarrek hiria berreraikitze erabakia hartu zutela. Abuztuaren 31ko gau hartan ehunka lagun erail eta beste ehunka emakume bortxatu zituzten aliatuek –basakeria horren lekukotasunak argitaratu genituen ARGIAren 2.377. zenbakiko erreportajea–, baina datu horiek itzalean geratu izan dira ia



Donostiarren
sufirimendua
irudikatzeko
Goyaren obrara
jo behar izan dute.
Si resucitará?
estampa.

beti, eta gizarte zibilaren sufirimendua barneratzeko zailtasunak ditugu oraindik. San Telmo Museoko erakusketan ere muga hori suma liteke, antolatzaileek beraiek aitortuta –“zaila da gertakari latz horiek ikuskitzen bihurtzea”–; batik bat Goyaren obra gorenera jo behar izan dute, laburrean bada ere donostiarren oina-zea irudikatzeko. Bistan da mendeurrena igaro ondoren, herritarrengandik hurbilago dagoen kontakizuna lantzeko premiak hor jarraituko duela.

Nolanahi ere, 1813ko gertaera eta testuingurua hobeto ulertzeko aukera paregabekoa da erakusketa, eta bide batez, ikuspegia kronologian zabaltzeko Baionako Euskal Museoa eta Zumalakarregi Museoa antolatutako erakusketa banarekin; lehenak 1893ko Konbentzio Gerra eta iraultza du oinarri, bigarrenak 1823ko “Luisen ehun mila semeen” inbasioa eta kontrairaultza. ■

Urko Apaolaza Avila

ERREZITALDIA

Anjel Lertxundik eta
Antton Valverdek
sortua da 3 eleak:
Lizardi, Lauaxeta,
Lete emanaldia.



Joan zen uda

ABUZTUA joango da bere olatu usainarekin, eta airea hasi orduko janzten hozkirriz eta hosto horitzen hasi berriz, zita bat izango duzu poesiarekin Donostian, Victoria Eugenia Clubean. Euskal Idazleen Elkarteak eta Donostiako Udalak antolaturiko *Poesia Orduak* beti kalitatezkoan programatu dituzte 3 eleak eta *Tenpora*.

Irailaren 3rako Anjel Lertxundik eta Antton Valverdek sorturiko 3 eleak: *Lizardi, Lauaxeta, Lete* emanaldia dago iragarrita. Hari musikal bat izango da, euskal literatura zeharkatzen duena, XX.

mendeko hiru idazle handirekin. Valverdek sobran daki Lizardi eta Lauaxetaz. Esango nuke, neurri handi batean, bere ahotsean eza-gutu ditugula. Eta gainera Leterekin pilotara jokatu zuen Oiartzun gris hartan, eta bertso zaharrak musikatu zituzten batera. Lertxundik poema bakoitza aurkeztuko digu, kokatu, ulertzen lagundu.

Irailaren 4an, oster, *Tenpora* (*zaldia, denbora*) dator, Harkaitz Cano eta Karlos Linazasororen hitzekin eta Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxua), Juanxo Zeberio Etxetxipia (tekla-

tuak) eta Elene Arandiaren (ahotsa) laguntzarekin. Gugandik bihozkada batera erreztatuko ei dute poetek, jo musikariek: “Denbora eta eguraldia, musika eta hitza, baraua eta oturuntza, guk zuretzat prestatu dugun tempo xamur xume bat, une batez barrurago bizi zaitezen, zeuk daramazun jaingo ttikiaren baitan”. Denen artean soinu bat bilatu eta horixe aurkitzea izan da euren erronka, “hementxe, zugandik bihozkada batera”. ■

Igor Estankona